

laburrak

■ **Golako ibaiko amuarrain guztiak hil ditu isurketa batek**

PENTAKLOROFENATO SODIKOKO isurketa inkontrolatu batek Arratzuko udalerria (Bizkaia) zeharkatzen duen Golako ibaiko amuarrain guztiak hil zituen ostegunean. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailaren arabera, Mendatako zerrategi batek eragin zuen ustez isurketa kutsagarria, zazpi kilometro luzean kalteak eragin zituen. Ondorioz, Patxi Ormazabal buru duen sailak espediente informatiboa zabaldu du, dagokion zigor prozedurari hasiera eman baino lehen. X

■ **Ikastola publikatueta langileen egoera salatu du LABek**


EUSKO JAURLARITZAKO Hezkuntza Sailak sare publikoan sartu ziren ikastoletako langileekin duen jarrera salatu zuen atzo LAB sindikatuak, «kolektibo hau bazterrean ahazturik eta dituen arazoak konpontzeke utzi» duelako. Sindikatu honen arabera, «badira hiru urte hainbat ikastola publikatu zirenetik, eta garai hartan sortu ziren arazoek konpontzeke segitzen dute». X

■ **Iruñeko etxebizitza batean piztutako suagatik hamar bizilagun atera behar izan zituzten**

IRUÑEKO Tafalla kaleko etxebizitza batean piztu zen sua atzo goizaldean. Udaltzaingoak esandakoaren arabera, manta elektriko batek sortu zuen lehenengo pisuan. Suak ke izugarria eragin zuen eta horren ondorioz beste lau solairuetara zabaldu zen. Hori dela-eta, etxebizitza hamar bizilagun atera behar izan zituzten suhiltzaileek, itotzen ari zirelako. Batzuk etxebizitzaren eskaileratik kanporatu zituzten, eta besteak leihoetatik, suhiltzaileen eskailerarekin. Gehienak zaharrak ziren eta DYAKO langileek tratatu zituzten. Hala ere, inor ez zuten eritxera eraman behar izan. X


■ **Solabarrieta «gezurretan» dabilela dio Erreka plataformak**

MARIA ESTHER SOLABARRIETA Bizkaiko Ingurugiro diputatuak hiri hondakin solidoen tratamenduari buruzko datuak «faltsutu» dituela eta «gezurretan» dabilela salatu zuen atzo Erreka plataforma ekologistak. Plataformako ordezkarien arabera, «Solabarrietaren informazio interesatu hauen helburu bakarra ura bere errotara eramatea da. Hau da, Erandion eraiki nahi duten errausteko planta defendatzea, horretarako gezurretan jardun behar badu ere». X



■ **Baionako Imamaren deia ukatu du auzitegiak**

PABEKO AUZITEGI administratiboak baieztatu du atzo aratsaldean Baionako Imamaren aurkako mugara bidaltzeko agindua. Mohamed Boufelja ikasle marokarra atxilotu zuen Poliziak asteazkenean eta legez kanpoko egoitza leporatu zion. Imamaren abokatuak errekurtsioa ezarri zuen, eta erabakia ezagutu arte Baionako epaileak bere etxean konfinatu zuen. Errekurtsioa ukatu du auzitegiak eta estatutik botatzeko erabakia administrazioaren eskuetan dago. X



Iazko martxoaren 8an emakumeek Donostian egin zuten manifestaldia.

ARTXIBOKOA

ETBk ez du Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren iragarkia kaleratuko

Barne araudiak debekatzen dio iragarki «ideologikoak» ematea

ETBk debekatu egin du martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunari begira, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak landutako iragarkia aieratzea, «aniztasunaren eta berdintasunaren oinarriak» babestu behar direla arrazoituta. Emakumeen Asanbladak «adierazpen askatasunaren» aurkakotzat jo du erabakia.

A. Ormaetxea / Donostia

EUSKAL TELEBISTAK Bizkaiko Emakumeen Asanbladari jakinarazi zion asteazkenean, ez zela aieratutako martxoaren 8ra begira landu zuen iragarkia. Iñaki Zarrakoak berak, ETBko zuzendariak, agiri baten bidez adierazi zion hori, Biltzarreko iturriek adierazi dutenez.

ETBk komunikabideei agiri bat igorri die erabakiaren berri emanez. Agirian irakur daiteke, EITBko Administrazio Kontseiluak bere garaian publizitateari buruz onartutako legediak «ukatu egiten duela ideia filosofikoak, erlijiosoak eta izaera politikoa duten iragarkiak aieratzea, hauteskunde kanpainetarako aurreikusitako izaera berezian salbu».

Besteetan ere hala egin duela dio ETBren agiriak, eta «erabaki hau errekurritua izan zen une bakarrean, epaileek arrazoa eman zioten Administrazio Kontseiluari». Legediaren funtsa «aniztasunaren eta berdintasunaren oinarria babestea» da, «ordaindutako eta aberasteko izpiritua ez duten giza taldeen iragarkiak aieratzea onartuz gero, ekonomikoki gaitasun gehiago dutenei mesede egingo genieke eta».

Bizkaiko Emakumeen Asanbleako iturriek EGUNKARIARI jakinarazi diote, «adierazpen askatasunaren» aurkakoa dela erabakia. Eta ezetza emateko jakinarazi zitzaizkien arrazoiak «aitzakia» dela uste dute, «telebista guztietan aieratzen diren iragarki guztiak direlako nahikoa ideologikoak».

«Aniztasuna iragarki guztiak aieratuz bermatzen da», Emakumeen Asanblearen ustez. Biltzarreko kideei ulerkaitza zaie erabakia, beren iritziz, aniztasuna ez baita bermatzen iragarki batzuk ez plazaratuz, «guztiak aieratuz baizik».

Asanbleak lau argazki osatutako iragarkia landu zuen, ETBko A buena hora telebista saioan aieratzeko, martxoaren 4tik 10era bitartean. Asmo horrekin jo zuten ETBra otsailaren 16an, eta «Jose Luis Lasoasa zuzendari komertzialarekin hitz egin genuen telefonoz. Otsailaren 19an, faxa bidali genien argazkietan zer ikusten zen eta iragarkiak zein mezu zuen agertzeko». Era berean, iragarkia aire-

ratu egingo zen baieztapena lehenbailehen jakinarazi zezatela adierazi zion Asanbleako kideek.

Emakumeen Asanbleako iturriek esan ziguten ETBkoek ez zituztela argazkiak ikusi. ETBren eta Emakumeen Asanblearen arteko harremana telefono deietara eta fasa bidezko komunikaziora mugatu zen.

Otsailaren 19ko hartu-emaren ondoren, ETBko ardura-dunek Asanbleako kideei esan zieten zerbitzu juridikoekin aztertu behar zutela gaia. Baina «joan den asteazkenean Iñaki Zarrakoaren idatzia heldu zitzaigun ezetza emanez», gaineratu zuten Asanbleako iturriek.

Emakundeek beraien alde egin duela esan zuten halaber.

◆ Lau argazki eta mezu bat

BIZKAIKO Emakumeen Asanbladak, ETBko A buena hora saioan plazaratu nahi zuen iragarkiak lau argazki finko ditu, eta mezu bat amaieran.

Asanbleako iturrien hitzetan, legebiltzar bat irudikatzen du lehen argazkiak. «Hemen emakumezkoak dira legebiltzarkideen erdiak, eta gizonezkoak beste erdiak. Gizonezko batek haur bat du besoetan». Bigarren argazkian, emakumeen manifestaldi bat ikus daiteke eta pankarta bat dute esku artean. «Eraserik ez, erantzunik gabe», irakur daiteke pankartan.

Sukaldea eta egongela batera dituen etxebizitza bat irudikatzen du hirugarren argazkiak. Hiru pertsona daude hemen,

«emakumezko bata iturgina da eta tutueria konpontzen ari da. Bigarren emakumea loreak ureztatzen ari da, eta gizonezko bakarra arropa plantxatzen ari da». Azkenik, laugarren argazkian hiru bikote dauden parke bat dago: bi gizonezko osatzen dute bikote bat, bi emakumezkoak beste, eta gizon-emakumeak hirugarrena.

Argazkiekin batera mezu bat du iragarkiak: «Egin ezazu hau guztia erreala izan dadin. Feminismoa bizirik. Etorri gurekin martxoaren 8ko manifestaldira».

«Hori zen dena, guztia garbi azaldu genien eta ezin izan dugu atera ideologikoa delako», azaldu zuten Asanbladakoek. X

zure lekua
dantza

Gure Txokoa

BELAUNTZAN